



# Etorkizuneko haziak ote?

*Ikerkuntzak eta teknologia berrien garapenak arazorik gabeko mundua imajinatzen garamatzate: biztanle guztientzako elikagaiak eta kutsadurarentzako eta ingurunearen suntsipenarentzako konponbideak.*

*Interneten bidez bioteknologiari buruzko ikerketa txiki bat egitea proposatzen dizuegu. Datu horiek eta IHITZAren zenbaki honetan bildu ahal dituzuenak abiapuntu hartuta, eztabaida antolatuko dugu ikasgela.*

## Elikadura eta ingurugiroa

Elikadura munduarekin dugun harremanaren beste adierazle bat da. Munduko biztanle gehienak gose diren aldi berean, elikadura desorekatua eta gehiegizkoa da lehen munduko heriotzen lehenengo zioa. Bestalde, kultura eta teknologien garapenak ez gaitu askatu naturarekiko mene-kotasunetik: beste izaki bizidun batzuek ekoitzitako materia organikoa behar dugu, materia eta energia lortzeko. Horregatik, ezin dugu ahaztu ekosistemak ukitzen dituzten jarduketek ondorioa daskriotela, bumerana legez, geure osasunari.

## Zer arazorri egin behar diegu aurre?

- Zergatik du nekazaritzak industria kimikoarekiko gero eta mene-kotasun handiagoa?
- Zer dakarkigu genetikoki eraldatutako haziak eta produktuak erabiltzeak?
- Zergatik dago gosea munduan?
- Behar beste elikagai ekoizteko gai al gara?
- Benetan al da altruista bioteknologi enpresen asmoa?
- Seguruak eta osasungariak al dira hartzen ditugun elikagaiak?
- Ekarri ahal du osasun arriskurik teknika berriak —elikagaien irradiazioa, adibidez— erabiltzeak?
- Zer dela eta agertu dira kutsagarriak elikadura katean? (Gogoratu Belgikako oilaskoekin gertatutakooa).

## Arazo horien gainean eztabaidatzeko interne-teko helbideak

1. FAOk (Nekazaritza eta Elikadura gaietarako Nazio Batuen Erakundeak) gaztelaniazko web gune bat du ([www.fao.org](http://www.fao.org)); bertan Nekazaritza atala eta, horren baitan, Bioteknologia atala kontsulta daitezke.



2. MONSANTO enpresak soia transgenikoa ekoizten du; soia horri osoko herbizida baten ondorea jasateko gen bat atxiki zaio. Haren web gunean ([www.pharmacia.com](http://www.pharmacia.com)), ingelessez idatziriko Monsanto atalera jo dezakezue, beraren produktuei buruzko informazio bila.



3. NOVARTIS enpresak *bst* herbizidaren eragina jasaten duen arto transgenikoa era-biltzen du; *bst* herbizidak *tala-dro* deritzana eta beste intsektu batzuk akabatzen dituen *bt* toxina sortzen du.



Novartisen web gunean ([www.info.novartis.com](http://www.info.novartis.com)) aurkituko duzue, ingelesez, enpresa horrek garatutako produktuei eta bost kontinenteen duen banaketa eta merkaturatze bideei buruzko informazioa. Agribusiness izeneko atalean nekazaritza jasangarriaz mintzatzen da.

4. GREENPEACE erakundea elikagai transgenikoen aurkako kanpaina garatzen ari da. Bere web gunearen ([www.greenpeace.org](http://www.greenpeace.org)) *Genetic engineering* atalean era-kundearen kanpainei buruzko in g e l e s z k o informazioa aurkituko duzue.

